

DEFRANCE, B. (2005)

*Disciplina en la escuela.* Madril: Morata.

Bernard Defrance Frantziako Maurice Utrillo de Stains lizeoko filosofia irakaslea da eta «Défense des Enfants International» (DEI-France) saileko Idazkari Nagusia Frantzian.

Lan honetan eskola erakundea aztergai dauka. Eskolak erakunde gisa bere baitan bakea lortzeko bortxazko erantzunak eta jarrerak gidatzeko dituen joko-arauak, esplizituak zein inplizituak, hartzen ditu abiapuntutzat. Egilearen iritziz arauak legitimoak izatea ezinbestekoa da, guztiek erabat errespetatu beharrekoak alegia. Bere ustez, ezin da ulertu eta zilegitzat eman, bakoitzak bere kasa arauak ezarri eta zigortzea. Egoera erreala azken hau izango balitz ez ginateke zuzenbide estatuan egongo ezta demokrazian ere azpimarratzen du. Errealitatea bidegabekeriatik hurbilago ikusten duelarik.

Azken finean egileak dioen bezala, otzantasuna zorrotz eskatzen duenak ez du esanekotasunik lortzen bere boterea inposatzen duenak izan dezakeen autoritatea galtzen duen bezalaxe eta zigorrak erabiltzeko xantaiairekin irakastea lortzen ez duen bezalaxe.

Arestiko gogoetak liburuaren gako nagusi gisa aurkezten ditu. Haratago joanik, hiritarren formazioa erantzukizun politikoa izan behar lukeen gaia dela uste du eta jarraian aztertzen du: hiritar izatea elkarrekin bizitzen ikastea dela eta elkarrekin legea egitea izango litzateke nolabait. Ildo berean, demokratak eta hiritarrak izaten ikastea soilik aisialdiko jardueretan ezin dela lortu aitortzen du Bernard Defrancek. Hona dakar berriz ere eta eginkizun honetan kokatzen du eskola erakundea. Zehatzago esanez, adibidez, matematikako, historiako, soin hezkuntzako, plastikako edo teknolo-

giako ikastarlotan hiritarra zein demokrata izaten ikas dezakegu. Horretarako giltzarriak aurkezten ditu. Azken baieztapena eusten duen arrazoi nagusia elkarrekin ikasten dugula da eta ikasten dugun une horietan ez ditugula gure kideak hautatzen da, hau da, zeinek ikasi behar duen eta norekin ikasi behar dugun ez dugu aukeratzen.

Aurreko paragrafoetan aipatutakoa baieztatzeko egileak zenbait ikasle eta irakasleren lekukotasunak bildu ditu. Bide hau jarraituz blokeo egoerak edo bortxazko gatazkak sortzeko arrazoiak zeintzuk izan daitezkeen aztertu ditu. Bidenabar, hezkuntza komunitateak egoera gatazkatsu hauetatik irte-teko eta gain hartzeko erreferentziak nola aurkitu eta bizikidetzat antolatze-ko arauak onartzea ahalbidetuko duen aukera aurkezten digu.

Azkenik esan, liburua ikastetxeetako eguneroko bizitzaren nondik norakoak ulertzeko erabilgarritasun handikoa izan daitekeela bai irakasleentzako eta baita familientzako ere.

*Olaia Jimenez*

HERNÁNDEZ «GUANIR», P. (2005)

*Educación del pensamiento y las emociones.* Madril: Tafor / Narcea.

Liburu mardula Pedro Hernández «Guanir» ezagunak eskaintzen diguna (559 or.) eta ez da, ez, sakelako liburua. Aldiz, planteamendu eta ideiak azaltzeko erak besteetan aurkitutako berotasun eta argitasun berak ditu, hurbileko hizkeraz jantzita eta zenbait unetan nobela kutsua hartu izan diot: atalak, azpiatalak eta beharrezkoak diren beste zatiketak ez dira, oro har, hizki edota zenbakiekin identifikatzen eta neurri batean linealki irakurtzera behartzen zaitu; ez dut uste gustu kontua soilik denik, ideiak eta planteamenduak egoki sailkatuta eskaintzea laguntza ikaragarria baita irakurlearentzat, are gehiago hau ikaslea bada.

Bestela, liburu interesgarritzat jo behar dugu zuzen zuzenean sartzen baita erakusteko estrategietan, ikastekoetan, motibatzeoetan, emozioak bideratzeoetan, irakasle, gurasoak orientatzeoetan... Liburuak agerian jartzen ditu, batez ere, irakasle zein ikasleen buruko moldeak eremu oso ezberdinetara eramanez, finean, ikas-irakas prozesuan sartzen diren aldagai ezberdin guztiak kontutan hartu nahian «por la conjunción del paradigma constructivista y emocional-personalizante en que se apoya», kontra-zean azaltzen den bezala.

Bost multzo nagusi azaltzen dira eta kuantitatiboki lehenengo bi multzoak dira nabarmentzen direnak: *I.- Heziketa nola hobetu gorengo mailara?* da lehenengoa eta 10 ataletan oinarritzako zenbait kontzeptu, ideia eta galdera planteatzen dira («Intuiziotik jakintza zientifikora», «Hezkuntzaren

psikologiaren hastapenak», «Egungo milurtekorako hezkuntza-erronkak», «Curriculum»...); bigarren multzoan aldiz, (II.- *eraginkorra izateko erakutsi*) eraginkorra izateko psikologia eta hezkuntzaren paradigmatak abiatzen da, «konduktismoa», «kognitibismoa», «konstruktibismoa» atal banatan jorratuz, estrategietan sakonduz, motibazioan bereziki sakonduz eta erreferentzia bereziak eginez komunikazioari eta alderdi emozionalari, egi-learen ekarpen nagusienetarikoa dena.

Hortik aurrera erraz ulertzen da hirugarren multzoak duen izenburua (III.- *Eraginkortasunez ikasi*), bi ataletan bananduta: ikasle eraginkorrak eta ikasteko estrategiak jorratuz. Azken biak elkarren eskutik doaz, izenburuak eurok adierazgarriak izaki: IV.- *Bizitzen eta elkarrekin bizitzen jakin*, V.- *Bizitzen eta elkarrekin bizitzen erakutsi*. Atsegin handiz irakurtzen dira hauek hizkera ulergarrian oinarritzko kontzeptuak garatuz. Ikasleengan ez ezik, guraso, hezitzaile, ikasgelako giro eta abarretan arreta kokatu beharra dagoela jarriko du agerian eta besterik ezin izango dugu egin deskribapen horietan gure burua islatuta ikustea baino; izan ere, bikain ikusi gure arrakastak zein porrotak eta planteamendu okerrak.

Mardula den liburu honek denbora eskatuko digu baina erabiltzen duen hizkera eta gaiak duten gertutasuna, atsegin handiz irentsiko ditugu gehienak. Ezin aipatu gabe utzi, multzo hauei beste mamitsu bat gehitzen diela bibliografiarako.

*Jose M.<sup>a</sup> Osinaga*

MARTÍNEZ RODRÍGUEZ, J. B. (2005)

*Educación para la ciudadanía*. Madril: Morata.

Honakoa Morata argitaletxeak irakasle, hezkuntza-ikasketen munduan abiatzen direnak eta, oro har, gure gizartean oinarri garrantzitsua den hezkuntzaren inguruan jakin-mina dutenentzat zuzendutako bilduman kokatu beharra dago. Ezaugarri hau ederki islatzen da liburuaren ezaugarri fisikoe-tan: tamaina, erabilgarritasuna... eta luzera era bai: 127 or. Eta formatuari dagokion erakargarritasuna areagotu egiten da jorratzen dituen gaien interesa ikusita baita horiek tratatzeko tinkotasunaz ohartzeko garenan ere.

Liburuaren izenburua aski adierazgarria da: ikastetxeetan egiten den bizitza (interesa eta bizipenen konplexutasun eta aniztasun guztiarekin), bizitza erreala-lanaren laborategi gisa uler daiteke eta horrela jardun ere. Ikastetxeetan giza eskubideak nola aplikatzen diren, ikasleen parte hartzea, gurasoena, talde ezberdinen arteko desorekak, gatazkak, printzipio hegemonikoak... eta ikas-irakas prozesuaren oinarri gisa negoziaketa azalduko da curriculum planifikatzeko gako gisa.

Sei ataletan banatuta agertzen da liburuaren mamia. Lehenengoan ikastetxea da abiapuntua eta ikergunea, demokrazia txikien gunea baita berau eta arau nagusiak, autonomia mailak eta, oro har, osagaiak gain gizarte beraren isla den heinean herritartasunaren habia izan daiteke. Aldiz, bigarren atalak hirukoterik esanguratsuen hartzen du erreferentzia: *Ezinezkoa al da guraso, irakasle eta ikasleen arteko elkarriketa?* Datuekin azaltzen da hauen artean dauden tartak, beldurren deskripzioak eta, nola ez, zenbait azalpen familiak eta irakasleen artean hartu-emanak hobetzeko.

Hirugarren atalak zuzen zuzenean ikasleak hartzen ditu kontutan, nagusiki hauek dituzten eskubideak aldarrikatuz. Laugarrenean, ordea, giza talde ezberdinen arteko lana dugu, talde-lana nola burutu, talde motak, lan-kidetzak, parte-hartzea bermatzea, talde txikien estatusa... Hurrengo atalak ikastetxeetan parte hartzeak izan ditzakeen adiera ezberdinak planteatzen ditu, egoera berrietan parte hartzeak zentzu berria eduki beharra azpimarratuz, parte hartzea hobetzeko zenbait neurri eta prozedura azalduz, ikasleen parte hartzea ebaluatzeko zenbait adierazle azalduz... eta horrela azken atalera iristen gara, negoziaketaren inguruan eratua: ikas gelan eta, oro har, ikastetxean dauden interes anitz eta ezberdinen aurrean negoziaketa erantzun gisa planteatzea, curriculumaren negoziaketa, edukien negoziaketa, zer ikasi eta zertarako, norbanako eta taldeko interes eta baloreen negoziaketa, gatazken kudeaketa...

Ikastetxeetan *guraso, ikasle, irakasle* osagai funtsezkoen artean sortzen diren ohiko arazoan aurrean liburu honek gogoeta fresko, samur eta interesgarria eskaintzen digu; zenbait arazo egiturazko planteatuta ere, gure eguneroko jardueratara eramangarriak dira gogoeta interesgarri asko gehi, liburua abiapuntua, norberak bidera ditzakeenak.

*K. Burgoa*

ORDEN, J. (2006)

*Psicología de la alimentación. Comportamientos saludables y trastornos alimentarios.* Madril: Morata.

J. Ogden Erresuma Batuko Surrey Unibertsitatean Osasunaren Psikologian Katedraduna da. Elikaduraren Psikologiari buruz gauzatutako ikerlana aurkezten digu honetan. Aurkezpena galdegai gakoak erabiliz hasten du, alegia *Zergatik jaten dugu jaten duguna?*, *Zergatik hainbeste lagun dieta egiten?*, *Zergatik arazo askoren muinean janaria eta pisua daude?*, *janaria asebetetzeko iturria edo adimen eta osasun fisiko txarraren seinalea ote.*

Elikadurak konplexutasun maila onargarria izan baduela aipatzen du honen ingurumarian higitzen diren askotariko faktoreak daudelako. Hau

dela eta, egileak psikologiaren eta diziplina ezberdinen, medikuntza, soziologia edo eta nutrizioa bezalakoen ikuspegiak biltzen ditu.

Dietaren inguruko bibliografia askotarikoa eta interes ezberdinak dituen dela dio egileak. Hainbatek elikadura osasuntsua dute interesgunea besteek aldiz elikaduraren nahasteek sorturiko arazoak edo gai ezberdinei buruzko berariazko lanak. Egileak liburu honekin dietari buruzko bibliografia zabala eskaintzea eta elikadurarekiko jarrera aztertzea ditu helburu. Elikadurarekiko jarrera, elikadura osasuntsutik hasi eta norbere gorputzarekin ase ezintasuneraino eta pisua galtzeko erregimenak eta gain-pisua arakatzetik elikadura nahasteetaraino aztertzen du. Hau horrela esanik, gai hauen arteko harremana ikustaraztea eta komunean dituzten gaiak frogatzeko asmoa du.

Jane Ogdenek Elikaduraren Psikologiaren baitan egindako ikerlanarekin dietaren espektoa erakutsi nahi du, elikadura osasuntsutik hasi eta elikadura nahasiraino. Liburuak bere lehenengo kapituluak xehetasunak aurkezten ditu. Gaiak murgiltzeko elikadura osasuntsuari eskaintzen dio bigarren kapitulua, era osasuntsuan elikatzeak zer esan nahi duen, dietaren zeregina gaixotasunaren aurrean eta helduen eta haurren dietaren nolakotasunak aztertuz. Janariaren aukeraketa psikologiaren hiru eredu teorikoe-tatik begiratzen du hirugarren kapituluak. Teoria ebolutiboaren, alegia ikaskuntza soziala, kontaktua eta asoziazio bidezko ikaskuntza eta teoria kognitiboaren kognizio sozialaren ereduak, egiten dituzten ekarpenak aintzat hartuz. Atal honetan psikofisiologiaren ikuspegiak ere erabiltzen ditu janariaren aukeraketan parte hartzen dituzten faktoreek duten eragina ikusteko eta janariaren eta gorputzaren tamainaren arteko lotura konplexuak azaltzeko.

Ondorengo bi kapituluak arestian aipatutako lotura konplexua argitzera datoz. Laugarren kapituluak soziologiaren eta antropologiaren bibliografiatik janariaren esanahia psikoterapeuten idatziekin lotzen du; bosgarrenean berriz, tamainaren garrantzia agertzen du argaltasunarekin eta gizentasunarekin dituen loturak hedabideen eraginetik arakatzuz. Azterketa hau egiteko psikologia soziala eta feminista hautatzen ditu. Lotura hauen ondorioetako bat janariaren aukeraketa konplexua bihurtzea eta norbere pisuaz arduratzen hastea da, hemendik, ardura norbere gorputza ez onartzeraino bilakatzen delarik.

Ondorengo kapitulua, seigarrena, norbere gorputza onartu ezinaren arazoak eta kausak aurkeztera dator. Zazpigarrenean aldiz, aurrekoaren ondorio posible batean oinarritzen da, alegia aseezintasunak nola bultzatzen duen erregimena egitera. Gizentasunaren nondik norakoak, kausak eta elikadurarekiko jarrerak duten zeresana lantzen ditu zortzigarren kapituluak eta hurrengoak, bederatzigarrena, gizentasunaren tratamenduari eskaintzen dio.

Liburuaren azken atalean, elikadura nahasteak aztertzen ditu. Hala nola, anorexia eta bulimia izango dira hamargarren eta hamaikagarren kapituluko aztergaiak. Batean, aipatu nahasteen kausak eta bestean, nahasteak artatzeko tratamenduak.

Azkenik, hamabigarren kapituluak aurreko denak laburbiltzen ditu eta dieta egiteko eredu osatua iradokitzen du. Ibilbidea azkenik ondorioak azalduz egiten du.

*Olaia Jimenez*

DE TORRES RAMÍREZ, I. (koord.) (2006)

*Miradas desde la perspectiva de género, estudios de las mujeres.* Madril: Narcea.

Egileek —emakumeen artean osotutako lan kolektiboan—, 215 orritan biltzen dituzte genero ikuspegitik eraikitako estudio desberdinak. Benetan ere, lan interesgarria da, ezen egunean jartzen baititu ikuspegi desberdinetatik eraikitako emakumeen ekarpenak.

Lehenengo atalean, «Ikerketa eta ezagutzarako perspektiba berriak» izenburupean, lan bi azaltzen dira. Lehenengoan, «Feminismoak Historian» deritzanean, emakumeen eskabideak agertzen dira, hau da, Olimpe de Gouges-k *Emakume eta hiritarren giza eskubideen adierazpena* idatzi zuenetik gorakoak. Bigarrenean, Sufragismotik eta bestelako mugimenduetatik bidaiatuz, emakumeen eskubideen konkista azaltzen da, bai Ameriketako eta baita Europako ere. Argi ikusiko da, feminismoari esker —historian zehar izan dituen gora behera guztiekin—, emakumeen egoera soziala zein kulturala kualitatiboki aldatu dela.

Consuelo Flechak feminismoaren teorizazioan —marko teorikoan zein praktika politikoan parte hartzeko moduetan—, pausu berriak eman behar direla dio. Genero kontzeptua zabaldu, aldatu, moldatu beharra aldarrikatzen du, betea baitu orain arteko helburua, hots, emakumeen egoera gutxitua agerraraztea eta —gaitzesten dugun—, kulturaren zein ezagutzaren androzentrismoa zuritzea.

Bigarren atalean, diziplinak berraztertzen dira: Historia, Antropologia, Teologia, Zientziak, Literatura, Geografia eta Arte arloan. Irakasle eta iker-tzaile diren zortzi emakumek, teoria eta praktika ez androzentrikoak eman dituen lorpenak azalarazten dituzte.

Historiagrafia arloari sor diogu genero kontzeptua bera, Joan Scott-ek definitu zuenetik ezinbesteko erreferentzia dena. Horrez gain, familia, lana zein bizitza politikoa —emakumearen rola horietan—, izan dira arlo hone-tan ikertutako gaiak.

Margaret Mead edo Ruth Benedict generoa Antropologiatik begiratzeko hasi zirenetik, emakumeen presentzia ohikoa dela dio Henrietta L. Moore-k azterketa etnografikoan. Atal honetan M. Soledad Vieitez-ek lan horietako batzuek azaltzen dizkigu. Askapenaren Teologiak ere badauka zer esanik, zeren, *Emakumearen Biblia* argitaratzerakoan erretorika patriarkala kuestionatzen duen hermeneutikaren oinarriak jarri baitziren. Elisa Estevez-ek, bestalde, tradizio erlijiosoa aztertuz, sumisioaren diskurtsoa apurtzeko eta subjektu teologiko bihurtzeko ahaleginak azaltzen ditu.

Hurrengo azaltzen dena da, emakume zientifikoak, Hypatia de Alexandria, Trotula de Salerno, Hildegarda de Bingen, Sofia Kovalesvskaia, Marie Curie eta beste batzuren ekarpenak, eta zientziaren historian izan duten presentzia; azalpenean zehar, emakumeak Zientzien Akademitan sartu artean izan zuten borroka azaleratuz. Ostean, Ana Maria Muñoz-ek aztertzen du gaur egunean ikasketa zientifiko-teknikoan emakumeen parte hartzea, zenbakiak eman eta emakumeen parte hartzea bultzatzeko programen berri emanez.

Emakumeak historiaren lekuko —gizonekin batera—, izan diren arren ez da aintzat hartu euren testimonioa. Hala ere, identitatearen bila egindako bidean lekukotasunik garrantzizkoena intimitatea arakatzean idatzitakoa da, dudarik gabe. Geografia arloko ekarpenen artean, 1997an argitaratu zen *Atlas de las mujeres en el mundo* da, oinarrizko ikuspuntua aldatuz, emakumeen benetako egoera azalarazten duena —datu estatistiko orokorretatik atera ondoren—. Friedich-ek *Emakumea leihoan* jartzen du, kanpora begiratu nahi duenak, mundua bere begietatik begiraraziz. Tresna pedagogikoa ere bada koadro hau, begirada kritikoa jorratzen duena.

Cyberespazioa eta baliabide bibliografikoak osotzen dute, hurrenez hurren, hirugarren atala, batetik teknologia eta emakumeen arteko harremanak aztertzeko, eta bestetik emakumeen lanen berri emateko. Arlo multidisziplinarra izanik, era guztietako lanak azaltzen dira, entziklopediak, liburuak, emakumeak defendatutako tesiak zein sarean aurkitu daitezkeen beste asko.

Epilogoan, «Feminismo akademikoa» izenburupean, emakume unibertsitarioen ekarpenak aztertzen ditu Pilar Ballarín-ek, aldaketa sozialerako iceberg-aren punta diren heinean. Bertan, unibertsitate espainoletan ari diren ikerlarien berri ematen du, salatuz, bide batez, 2005ean unibertsitatearen eredu gizonezkoena, desberdintasunean oinarritzen dena, eta horren kontrako politikarik garatzen ez duena.

Honenbestez, kristalezko labirintoan ekinean jarraitu beharra daukagu.

*Begoña Bilbao*

SIRAJ-BLATCHFORD, J. (2006)

*Nuevas Tecnologías para la educación infantil y primaria.* Madril: Morata.

Liburu honetan teknologia berrien inguruan egindako ikerketa-lan desberdin batzuen emaitzak aurkezten dira. Lan hauek haur eta lehen hezkuntza mailatan kokatzen dira eta *Europako Batzordearen Experimental School Environmets* ekimenaren inguruan burututa daude. Orokorrean, aurkeztutako lanak eta horren inguruan sortu diren lan taldeak ondorengo helburuak lortzera zuzendu dira: haur eta gazteen komunikazioa bultzatu, egoera gatazkatsuen aurrean sormena sustatu eta hezkuntza premia bereziko egoerari erantzun desberdinak proposatu.

Liburuaren kapitulu bakoitzean ondorengo proiektu bana aurkezten da:

Caress proiektuan teknologia berrien bitartez ingurune akustiko eta el-karreragilea sortzen dute haurren sormena, irudimena, eta adierazpena garatzeko asmoz.

Construction kits Made of Atoms and Bits (CAB) tresna informatikoa zortzi urte baino txikiagoak diren haurrentzat pentsatuta dago. Honekin gazteek objektu zibernetiko berriak diseina eta eraiki ditzakete.

Children in Chros and Chronos (C3) proiektua. GPSeko teknologian oinarritutako jokia sortu dute gaitasun espazialak eta tenporalak lantzeko.

éTui proiektuan robot sentso-re-anitzekoak eta programagarriak asmatu dituzte haurrak estimulatze asmoarekin. Modu honetan ikasten ikastera bultzatu nahi dute.

KidStory ezarpena. Istorioak kontatzen laguntzen du leku birtualak sortuz. Modu honetan istorioaren lekua eta denbora irudikatu daiteke.

Networked Interactive Media in Schools (NIMIS). Etorkizuneko gela sortzeko asmoa bilatzen du. Horretarako informazio eta komunikaziorako teknologia berriak erabiltzen dituzte, gela bakoitzean sarean konektatutako ordenadoreak, pantaila handiak eta ezarpen interaktiboak jarritz.

Playground proiektua. Haurrei laguntzen die existitzen diren joko birtualen arauak pentsatzen eta jartzen.

Pogo tresna. Honen bitartez haurrek asmatutako pertsonai baten nor-tasuna ordenagailuz egindako beste pertsonai birtual bati esleia diezaio-kete.

Puppet proiektua. Aprestuz goiztiarra bultzatzeko asmoarekin sortu da. Horretarako haurrek asmatu eta zuzendu dezakete txotxongilo birtualak eszenatoki birtual batean.



Today's Stories. Ikasleen gogoeta bilatzen du. Horretarako, haurrek mini kamara eramangarriak baliatuz eguneroko ikus-entzunezkoak egiten dituzte eta grabatutakoaren inguruan hausnarketak bultzatzen dira.

Proiektu guzti hauek lehen eta bigarren hezkuntzako irakasleei teknologia berrien erabilera desberdinak ezagutzeko aukera ematen die. Halaber, liburu hau erreferentziazkoa da baliabide informatikoren aplikapena hezkuntza formalaren alorrean ikertzen dutenentzat zeren eta honi ezker Europa mailan sortzen ari diren lantalde eta joera berriak jasotzen baitira.

*Arkaitz Lareki*

KNIGHT, P. T. (2005)

*El profesorado de Educación Superior. Formación para la excelencia.* Madril: Narcea.

Honako liburua irakaskuntza-jarduerara eta bere inplikazioetara hurbiltzen da, betiere Unibertsitateko zereginetako bikaintasunaren, eta jarduera profesionala norberaren burua asetzeko eta betetzeko esparru gisa ulertzen duen testuingurutik. Batez ere, gaur egun Goi Irakaskuntzako alderdi nagusienetako batzuetan oinarritzen da, hala nola irakaskuntza- eta ikaskuntza-jarduerak, ebaluazioa eta bere planifikazioa, irakasleen autoestimua eta motibazioa.... horiek, beste batzuen artean.

Egileak (Britainia Handiko Open University-n diharduena bera, Emaitzetan oinarritutako Hezkuntzari buruzko ikerketa Zentroan) Unibertsitateko hiru egoera aztertzen ditu bereziki, bakoitzaren inplikazio soziologiko, psikologikoa eta bestelakoak aintzat hartuta: irakasle hasi berriena batetik, jardunaldi partzialean daudenena bestetik, eta plaza jabegoan dutenena azkenik.

3 zati nagusi, eta 14 ataletan banatuta, 9 lehenek eskema berberari jarraitzen diote, hara: hasteko, egileak aldiaren aldiko aztergaiari buruzko ikuspegia islatzen du labur; jarraian, zati luzexeago batean orain arte gaia- ren gainean ikertu denaren berri ematen du, era formalagoan. Zati horrek, gainera, bide egiten dio hurrengoari, non aldeztu aurretik azaldutakoek praktikan sortu ondorioak aipatzen baitituen, errealitateko zenbait kasutan oinarrituta. Laugarren zatian, egileak ideia edo pista jakin batzuk ematen ditu, iradokizunak alegia, nahiz eta aukeran «errezeta-zerrendatik» gertuegi iruditzen zaizkigun batzuetan, horien aplikazioa edozein egoeratan lagungarri baidituzten. Eta, azkenik, irakurgai pare bat proposatzen du bosgarren eta azken zatian, batez ere literatura anglosaxoitik hartua.

Liburuaren lehen zatia arreta guztia jartzen du irakaskuntza-jarduerak indartzeko teknika eta estrategietan: nola gauzatu, eta nola hobetu, Goi

Mailako Irakaskuntzara iritsi berriei laguntzeko eta bidea erakusteko bokazioa nabari zaio atalari. Bigarren atalak irakasleen jarduerari begiratzen dio, behin praktikara eramaten dutenean; horretarako, zenbait irakas-estilo, -xede eta -lehenasun desberdin kontuan hartuta jarduera-estiloan sortuko diren berezitasunak erabiliko ditu egileak oinarri. Azkenik, azken zatia osatzen duten atalak, irakaskuntza-jardueraren pizgarri behar duen (edo lukeen) aldaketarako gaitasuna dute ardatz: zertarako aldaketa, eta zenbateraino?, nola eragin?, eta abarren gainean egiten du hausnar.

Idatz-estiloa irakurterraza eta didaktikoa da aldi berean, sarri askotan behaketatik hartutako adibide eta anekdotez hornitua. Liburuan zehar zenbait disziplina eta hurbilpen mota desberdinek uztartzen dira, hala nola Hezkuntzaren Soziologiak, Antropologiak eta Psikologiak, Unibertsitateko irakasleen eta beren jarduera profesionalaren baitan elkarren arteko eraginpean agertzen eta nahasten diren neurrian. Egileak kontuan hartzen ditu baita kaleko eguneroko egoeraren eragina ere. Irakurketa hurbila ere bada; izan ere, sarri askotan bertoko diskurtsotik ez oso urrutiko bidea hartzen dute irakasleek arteko berriketa informalak, behin bulego zein ikasgelatik aterata, kalean topo egin edota tabernan elkartu eta nork bere penak eta pozak konpartitzera biltzen garenean.

*Mario Unamuno*

DAY, C. (2005)

*Formar docentes. Cómo, cuándo y en qué condiciones aprende el profesorado.* Madril: Narcea.

Izenburua benetan iradokizunez betea, hara, noiz, nola eta zein baldintzetan ikasten duen irakasleak. Bada, behin liburua aztertuta, hauxe bai lanabesa eta tresna teknikoa, inon baldin bada. Pena bakarra, nahiz eta gaitzerdi esan beharko dugun, Narcea argitaletxeak ohi duenez, bestelako mundu kulturalen batetik datorkigula, ingelesez aritzen den mundutik alegia. Sarri dira azkenaldion argitaletxe honen bidez kultura anglosaxoietik datozkigun ekarpenak

Day Hezkuntza alorreko katedraduna da Nottingham-eko Unibertsitatean. Azken 20 urteotan irakasleen etengabeko formakuntzaz arduratu izan da bereziki. Oraingoan, azken urteetako bere hausnarketak ordenatu ondoren, egileak norberaren testuinguru pertsonalak eta profesionalak irakaskuntzaren kalitatea areagotzen ala eragozten duen azaltzen saiatzen da. Eragile horien artean, esaterako, honakoak seinalatzen ditu: lidergoa eta kultura instituzionala, irakasleen eta ikastetxeen gaineko ebaluazioa, lanean dauden irakasleek etengabeko formakuntza, hausnarketan oinarritutako praktika, sareen osiera Unibertsitate eta Unibertsitate aurreko hezkuntza-etapen artean.

10 ataletan banatzen da liburua, egilearen ustetan irakasleek garatu beharreko trebetasunen eta izan beharreko laguntzen arabera. Hiru auzi nagusi bereizten ditu derrigorrezko hezkuntzaren arduradunen zereginen eta arduren inguruan: lehenik eta behin finantziarioarena, ondoren irakaskuntzaren kalitate egokia, eta azkenik, irakasle onak bereizi, hautatu eta gordetzeko gaitasuna.

Hausnarketa eta behaketan oinarritutako emaitzen ondorio izanik ere, liburuaren baitan bada bokazio praktikoa; ezin esan, inolaz ere, errezeta-zerrenda denik, baina bai ideia praktikoa ugariz hornituta dagoela, egunerokotasunean lagungarri. Bigarren atalean, esaterako, egun gure Unibertsitate Eskoletan kezka somatzen ditugun fenomeno biren inguruko hausnarketa egiten du, hara: batetik, hausnarketarako gaitasunari buruz, horretan eragiten duten faktoreen gainean, faktore horiek lantzeko eta beraien eragina ikasleengan suspertzeko esatategiez. Bestetik, irakaslearen izaerari buruz ere, galdera bat planteatzen du egileak, bere lehen formazioa holako edo halako izatera bideratuko duena, hara: nondik du gehiago irakaskuntzak, eza gutza teknikitik, edo nork bere kasa hausnarketa egiteko gauza den jardueratik? Egia esan, Dayren hausnarketak gai horien eta besteren gainean ez dira ez bereziki sakonak, ez luzeran behar beste garatuak, baina irakurleengan gure geure artean eztabaida pizteko adinako gatza bada beraietan.

Gure ustetan oso kontuan hartzekoa, liburuari osotasuna ematen dion tonu didaktiko-praktiko horren gainetik, azken atalean egileak egiten duen hausnarketa. Izan ere, aurretik esandako guztiak egileak aldaketa prozesu bizian dagoen gizarte eredu batean kokatzen ditu; horrexerik eskaintzen dio hamargarren eta azken atal hori, munduan gertatzen ari diren aldaketa sozialez, eta irakaskuntza aplikatuan, ikasgeletan, aipatu aldaketek izango dituzten, eta oraintxe betan ere badituzten, eraginak aztertzea. Eta horrekin batera, ikusle huts eta pasibo izan gabea, irakasleari dagokion paperari buruzko hausnarketa.

*Mario Unamuno*

## **JASOTAKO LIBURUAK**

TORRES, J.. (2006)

*La desmotivación del profesorado.* Madril: Morata.

FRASER, N. eta HONNETH, A. (2006)

*¿Redistribución o reconocimiento?* Madril: Morata.